

PLaza

2007KO AIPAGARRIENAK > **ANTZERKIA eta DANTZA**

Heldutasuna eta ezintasuna

Euskal antzerkia eta dantza geldiune baten atarian daudela nabarmendu du Agus Perez kritikariak

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Euskal antzerkigintzan, aurtan, aspalditik datozen joerak errepikatuta dira. Taldeak bidea egiten ari diren arren, oinarrian egoera ahula nabarmetzen da: jarraipena bermaturik ez daukan arte saila da antzerkia; gisa berean, baina gordinago oraindik, dantza. Eta, hala ere, emanaldi interesgarriak sortzen dira urtero, batzuetan bikainak. Sortzeko gaitasun hori ez da, behintzat, galdu. Baina ezin dira esportatu askotan. Badaezpada, dakoak dira gehienetan.

Horixe azpimarratu du Agus Perez arte eszenikoetako BERRIAKO kritikariak, aurtengo eskaintzak zer eman duen galdetuta. Itxaropenerako zirrikitua ikusi, ikusten du, baina, era berean, egungo bideetik jarraituz gero sormen paralisia ere egin dezakeen egoera antzematen du. «Emanaldi sendo eta indartsuak ikusi ditugu aurtan», dio, «baina kasualitatez ia, ez finkotasunez». Horregatik, etorkizunera begira, geldialdia begitantzen zegoa.

HEZIKETA FALTA, LURRALDEASUNA. Zergatik, ordea, ezintasuna? Heziketa falta bide da arrazoietakoa bat. «Hemen denak izan gara nahiko autodidaktak, eta falta izan zaigu, eta falta zaigu oraindik ere, egitura akademikoa. Arte eszenikoen goi eskola, esaterako». Bestetik, proposamenak trukatu eta taldeen arteko emariak sortzeko, biziberri-tzeko azken finean, lurraldeen arteko mugak arazo dira. Nafarroa

«Emanaldi sendo eta interesgarriak ikusi ditugu aurtan, baina kasualitatez ia, ez finkotasunez»

«Hemengo konpainiak ez dira lehiatzen, antzezlanak ez doaz kanpora, eta ez dute presio sano hori sentitzen»

AGUS PEREZ
ANTZERKI ETA DANTZA KRITIKARIA

eta EAEko lurraldeen artekoa «amildegia» dela dio. Nafarroan sortzen diren produktuak ez direla Gipuzkoara edo Bizkaira iristen, eta alderantziz. Ipar Euskal Herriko taldeekin harreman handiagoa dela, baina oztopo horiek, antzerki lanen ibilbidea moztu ez ezik, bertan goxo egoteko sententzioa sortzen dutela.

«Hemengo konpainiak ez dira lehiatzen. Antzezlanak ez doaz kanpora, eta orduan hemengo konpainiek ez dute inoiz ikusten euren burua besteen pare. Ez dute presio sano hori sentitzen. Zailtasunekin ibiltzen dira, bai, baina nahikoa dute horrekin, eta beren buruari begira bizi dira».

ESPERIMENTAZIO FALTA. Horrekin lotuta dago, beharbada, Agus Perezek aipatzen duen beste gabezietakoa bat. Edo, beste era batera esanda, konpondu beharreko egiturazko beste arazo bat: esperimentazio falta. Euskal antzerki taldeak arrakastari begira bizi omen dira. Eta hor, aditu nonen-tzat, telebistak badu zerikusirik. «ETBk eredu komikoa ezarri du, antzerki barrengarriaren eredu. Haiek uste dute horretan arrakastatuta dela, eta aktore asko bizi dira hortik, ogibidea hori dute. Gero, telebistako produkzioak antzeztokietara eramaten dituzte...».

Antzerkiola Imaginarioa izan da, urtetan, faltan omen dagoen esperimentazio horren ereduetakoa bat, baina, Agus Perezentzat, eredu ez da egokia. «Hainbat urtetan esperimentatzen ibili dira, baina oso era zarratuen beren buruari begira gehiegi. Horrek apur bat zaildu egin du bidea, eragotzi egin die publiko zabalarengana iristea. Eta ez dago zertan arriskua eta publiko zabala bereizi».

Dantzan antzerko egoera ikusten du kritikariak. Heziketa alde-tik Europako ohiko mailatik oso urrun, salbuespen batekin: Pantxika Telleria eta Elirale konpainia. «Guztiz profesionala eta existentzia maila bikaina duena».

Baina... adibidea: «Umeentzako ikuskizuna sortu zuten iaz, eta Hendaian emanaldia prestatu zuten kultur aretoko programatzaileentzat. Hego Euskal Herri-tik ez zen inolr joan. Hori, behintzat, oso mingarria da», dio.



Emakumeak izarapean antzerki lanaren emanaldia. BERRIA

Izarapeak, Sommer jauna eta artea

A. B.
Iruñea

Egiturazko egoera txarra izanda ere, aurtan ere zer gozatua izan dute antzerkizaleek. Hona hemen antzeztokietara iritsitako lagina. Izarren lagina, nolabait esanda.

Euskal antzerki taldeak

Emakumeak izarapean Ttamtaka antzerkiak iazko martxoan aurkeztutako antzezlan izan da, Agus Perezentzat, emanaldirik azpimarragarrienetakoa. Baita *Artea* Txalo konpainiarena eta *Abentura Antzokian* Bilboko Arriaga antzokiak ekoiztutako antzezlan ere. Neurri apalagoan, baina kalitatean ere bikain, *Amamaren memoria*, Miarritzeko Teatre des Chimeres taldeak ekoiztutakoa, eta Txalok ekoitzi eta Jose Ramon Sorroizek interpretatutakoa ere, *Sommer jaunaren istorioa*. Joan den abenduan Durangon estreinatu zen lan hori, Patrick Suskinden testuan oinarrituta. Beste bat, aipatu gabe ere utzi nahi ez duena, Doke taldeak Pedro Ignacio Barru-

tiaren *Acto para la noche buena* lanarekin egindako bertsioa, Gabonetan Donostian, Iruñean, Markinan eta Aramaion taularatu berri dutena. «Produktzio aldetik, gauza txikia, baina kalitate artistiko aldetik oso ona, bikaina».

Atzerriko antzerki taldeak

Lau emanaldi gogoratu ditu kritikariak. Lisboako (Portugal) Companhia do Chapito lehena. *O grande criador* (Hezitzaile handia) antzezlanarekin Bizkaian zehar nola ibili ziren. Kartoizko kutxekin eta material birziklatuarekin egindako antzerkia. «Jarraitu beharreko eredu, baliabide gutxiarekin gauza interesgarriak egin daitezkeela frogatu duena».

Bestea, Atalaya taldeak *La opera de tres centavos* (Hiru zentimoko opera) lana, Bertold Brechten idazkian oinarritua. «Andaluziako talde militantea, oso ezkertiarra, oso ideologizatua. Ikuskizun gisa, oso landua». Azkenik, Ana Valleses Matarile konpainiaren emanaldiak. *Me acordaré de todos*

vosotros (Gogoan izango zaituztet denak). Antzerkia, poesia eta dantza dena batera.

Dantza emanaldiak


Pantxika Telleriaren ekoizpenak eta *Ipuin iberiarrak* Fran Lasuenek sortu eta dantza eta musika nahasten dituen ikuskizuna dira ekimen aipagarrienak. Kanpotik iritsitakoen artean, Kolonbiako L'explose dantza garaikideko taldea nabarmendu du.

Antzokiak

Hirukote den artean nabarmendu beharrekoa, Agus Perezen aburuz, Zornotzak, Durangok eta Elorek osatzen dutena da. «Egonkortasuna eta programazio arriskatua dute, eta zirkuitua osatu dute. Jendea hezi egin dute, gainera». Beste hirukote bat, berriz, Basaurik, Bilboko Arriagak eta Barakaldok osatzen dute. «Profesionalak eta interesgarriak». Ondoren, Santurtzi, Andoain, Donostiako programazioa, Getxo, Nafarroako Antzerki Eskola...



Txalo konpainiaren *Artea*. BERRIA



Amamaren memoria. BERRIA



Elirale dantza konpainia. CAIXA IROZ